



2002/04/04ko prentsa-oharra

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko otsaila**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %0,8 HAZI ZEN 2002KO OTSAILEAN

Indize orokorra Araban (%1,7) eta Gipuzkoan (%2,1) igo da, eta jaitsi Bizkaian (%-0,9)

2002ko otsailean, %0,8 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2001eko hil beraren aldean. Urteko lehen bi hilabetei buruzko hazkunde-tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %0,2ko hazkundera lortu du.

2002ko otsailean, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *elikagai-industria* (%15,3), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%10,2), *bestelako manufaktura-industriak* (%8,6), *garraio-materiala* (%5,3), eta *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%5,1).

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak izan dituzten sektoreak *petrolio finntzea* (%-22,2), *ehungintza eta jantzigintza* (%-11,1), *larruaren eta oinetakoen industria* (%-4,0), eta *metalgintza eta metalezko gaiak* (%-3,5) izan dira.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2002ko otsailean, *kontsumo-ondasunen* (%2,0) eta *ekipo-ondasunen* (%0,4) tasak igo dira; *bitarteko ondasunei* dagokiena, aldiz, jaitsi egin da (%-1,2).

Industri Produkzioaren Indize Orokorraren portaera desberdina izan da hiru herrialde historikoetan. Alde batetik, hazkunde nabarmenak antzeman dira (%2,1ekoa eta %1,7koa) Gipuzkoan eta Araban, hurrenez hurren, eta, bestetik, jaitsiera txikia izan da Bizkaian (0,9koa), neurri batean *petrolio finntzea* sektoreak azken herrialde horretan izan duen beherapenaren ondorioz.

Taula: 2002ko OTSAILA. Hazkunde-tasa (%). Industri Produkzioaren Indizea. Euskal AE.

Azalpena	Aurreko urteko hil beraren aldean	Datu zuzenduak, aurreko urteko hil beraren aldean (*)	2001eko urtarri-otsaileko tasa metatua	2002ko urtarri-otsaileko tasa metatua
Indize orokorra: Euskal AE	0,8	0,8	0,6	0,2
Araba	1,7	1,7	0,7	1,9
Bizkaia	-0,9	-0,9	-0,3	-1,0
Gipuzkoa	2,1	2,2	1,7	0,8
Indizeak sektore-zatiduraka				
- Euskal AE:				
Ateratze-industriak	10,2	10,2	13,3	11,2
Manufaktura-industria	0,2	0,2	1,0	-0,7
Energia elektrikoa, gasa eta ura	5,1	5,1	-2,9	8,4
Indizeak helburu ekonomikoka - Euskal AE:				
Bitarteko ondasunak	-1,3	-1,2	3,3	-1,2
Kontsumo-ondasunak	2,2	2,2	-0,1	1,1
Inbertsio-ondasunak	0,4	0,4	-4,8	0,5

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz Tel: 945-01 75 00 Fax: 945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel: 945-01 75 14 Fax: 945-01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--